



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO. 105. zk. 2016, ekainak 2. Osteguna

— 11731 —

BOB núm. 105. Jueves, 2 de junio de 2016

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 103/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 31koa. Honen bidez, 2015eko abenduaren 15eko 199/2015 Foru Dekretua aldatzen da. Foru dekretu horren bidez, berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2016ko Programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dira.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 100/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko kide antzeko gobernu eta administrazio-organo gisa funtzionatzeko erregelamendua onesten duena.

Administrazio-kontratu berezi baten formalizazio-iragarkia: Bizkaiko Foru Aldundiak Muskiz eta Güeñes udalerrietan dituen ondare mendietako 3 loteren baso aprobetxamendua.

Zerbitzu-kontratu baten formalizazio-iragarkia: «1. Aldeko errepideen kontserbazio integrala».

Zerbitzu-kontratu baten formalizazio-iragarkia: 2. Aldeko errepideen kontserbazio integrala egiteko zerbitzua.

Zerbitzu-kontratu baten formalizazio-iragarkia: «3. Aldeko errepideen kontserbazio integrala».

Zerbitzu honen formalizazioari buruzko iragarkia: «Laguntza teknikoa Bizkaiko Lurralde Historikoko mugikortasuna eta trafikoa buruzko neurketa eta azterlanen plana egiteko».

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 3105/2016 FORU AGINDUA, maiatzaren 9koa. Honen bidez ebatzen da «Alonsotegiko Arau Subsidiarioen Loibe Sektoreko P-5 lurzatiaren aldarazpen zehatzaren» ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

11733 Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

11733 DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 103/2016, de 31 de mayo, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 199/2015, de 15 de diciembre correspondiente a las bases reguladoras y primera convocatoria del Programa de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2016.

11734 Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

11734 DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 100/2016, de 31 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento de la Diputación Foral de Bizkaia, como órgano colegiado de gobierno y administración del Territorio Histórico de Bizkaia.

11740 Anuncio de formalización del contrato administrativo especial de aprovechamiento forestal de 3 lotes situados en montes patrimoniales pertenecientes a la Diputación Foral de Bizkaia sitios en los t.m. de Muskiz y Güeñes.

11741 Anuncio de formalización de contrato de servicios de «Conservación integral de carreteras Área 1».

11742 Anuncio de formalización de contrato de servicios de «Conservación integral de carreteras Área 2».

11743 Anuncio de formalización del contrato de servicios de «Conservación integral de carreteras Área 3».

11743 Anuncio de formalización de contrato de servicios de «Asistencia técnica para la realización del plan de aforos y estudios relativos a la movilidad y el tráfico en el Territorio Histórico de Bizkaia».

11744 Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural

11744 ORDEN FORAL de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural 3105/2016, de 9 de mayo, por la que se resuelve formular informe ambiental estratégico de la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Alonsotegi en el sector Loibe, parcela P-5.

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak / Empresas y Organismos Forales

Azpiegiturak, S.A.U.

Esleipenak argitaratzea Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 154. artikuluan ezarritakoa betez (Espediente O/01/16).

11749 Azpiegiturak, S.A.U.

11749 Publicación adjudicaciones en aplicación del artículo 154 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (Expediente O/01/16).

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala	11750	Ayuntamiento de Bilbao
Plentziako Udala	11751	Ayuntamiento de Plentzia
Artzetalesko Udala	11757	Ayuntamiento de Artzetales
Abanto-Zierbenako Udala	11760	Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana
Santurtziko Udala	11766	Ayuntamiento de Santurtzi
Zaldibarko Udala	11767	Ayuntamiento de Zaldibar
Ermuko Udala	11771	Ayuntamiento de Ermua
Erandioko Udala	11772	Ayuntamiento de Erandio
Basauriko Udala	11773	Ayuntamiento de Basauri
Sukarrietako Udala	11777	Ayuntamiento de Sukarrieta
Meatzaldeko Behargintza, S.L.	11778	Meatzaldeko Behargintza, S.L.
Uriguren Haurtzaindegia Fundazio (Mungia)	11778	Fundación Uriguren Haurtzaindegia (Mungia)
Udal Euskaltegiaren Fundazio Publikoa (Ermua)	11779	Fundación Pública Euskaltegi Municipal (Ermua)

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

11780	Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)
11780	Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao (Bizkaia)
11781	Juzgado de lo Social número 6 de Bilbao (Bizkaia)
11781	Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao (Bizkaia)
11782	Juzgado de lo Social número 10 de Bilbao (Bizkaia)
11783	Juzgado de lo Social número 24 de Madrid
11784	Juzgado de Instrucción número 2 de Bilbao (Bizkaia)
11784	Juzgado de Instrucción número 3 de Bilbao (Bizkaia)

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 103/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 31koa. Honen bidez, 2015eko abenduaren 15eko 199/2015 Foru Dekretua aldatzen da. Foru dekretu horren bidez, berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2016ko Programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, 2015eko abenduaren 15ean hartutako erabakiaren bidez, 199/2015 Foru Dekretua onetsi zuen, berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2016ko Programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dituena.

Dekretu horretan, amaierako xedapenetan ezartzen da aurrekontuko dotazioa; hirugarren artikuluan, hain zuzen.

Aipatutako artikuluan agertzen da: «Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan babesean (5/2005 Foru Araua garatzeko diru-laguntzen erregelamendua onesten du dekretu horrek), aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa areagotu ahal izango da, gehienez ere 1.000.000,00 euro gehituz, baldin eta esku-ragarri dauden kredituak areagotu badira kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo gehitu delako edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.»

Oraintsu, eta diru-laguntza emateko ebazpena onartu aurretik, handitu egin da aurrekontu-zuzkidura, kreditu-handitzeak onartzearen ondorioz.

Hori dela eta, aldatu egin behar da berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2016ko Programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dituen 2015eko abenduaren 15eko 199/2015 Foru Dekretuko azken xedapenetako hirugarrena: planaren aurrekontuko zuzkidura 750.000,00 euro handituko da, xedapen honetan jasotako banakapenaren arabera.

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko maiatzaren 31ko batzarraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

1. artikulua

2015eko abenduaren 15eko 199/2015 Foru Dekretuko azken xedapenetako hirugarrena aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

Hirugarrena. — *Aurrekontuko zuzkidura*

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, gutxira 3.400.000 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu partidetan, aurrekontu proiektu eta urtekoetatik ordainduko dira; gutxi gorabeherako kopuruetan banakatuta agertuko dira, eta muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da, betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko dagokion aurrekontu orokorrean kreditu egokia eta nahikoa badago:

Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 103/2016, de 31 de mayo, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 199/2015, de 15 de diciembre correspondiente a las bases reguladoras y primera convocatoria del Programa de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2016.

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia de 15 de diciembre de 2015, se aprobó el Decreto Foral 199/2015, correspondiente a las bases reguladoras y primera convocatoria del Programa de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2016.

En el citado decreto, en las disposiciones finales en el artículo tercero se establece la dotación presupuestaria.

En dicho artículo se establece: «Al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 1.000.000,00 de euros, bien cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o incorporaciones de crédito, bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas; quedando condicionada la efectividad de la cuantía adicional a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano competente para ello».

Recientemente, y antes de la resolución de la concesión de la subvención, ha tenido lugar un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito

En base a ello procede modificar la disposición final tercera del Decreto Foral 199/2015, de 15 de diciembre, que aprueba las bases reguladoras y primera convocatoria del Programa de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2016 para aumentar en 750.000,00 euros la dotación presupuestaria de dicho plan de acuerdo al desglose recogido en la presente disposición.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 31 de mayo de 2016

SE DISPONE:

Artículo 1

Modificar la disposición final tercera del Decreto Foral 199/2015, de 15 de diciembre en la forma que sigue:

Tercera. — *Dotación presupuestaria*

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse en la presente convocatoria, por un importe total de 3.400.000 euros, se efectuarán con cargo a las partidas presupuestarias, proyectos presupuestarios y anualidades que se relacionan a continuación, desglosadas en las siguientes cantidades aproximadas, teniendo como límite la cantidad total establecida en las diferentes partidas, siempre que exista crédito adecuado y suficiente en el correspondiente Presupuesto General del Territorio Histórico de Bizkaia:

08.02/44300/720.109	
Proiektu zk.: 2015/0025	
Ekitaldia	Importe (€)
2016	744.943,15
2017	250.000,00
Guztira	994.943,15

08.02/74300/720.109	
Proiektu zk.: 2015/0025	
Ekitaldia	Importe (€)
2016	1.755.056,85
2017	650.000,00
Total	2.405.056,85

08.02/44300/720.109	
N.º de Proyecto: 2015/0025	
Ejercicio	Importe (€)
2016	744.943,15
2017	250.000,00
Total	994.943,15

08.02/74300/720.109	
N.º de Proyecto: 2015/0025	
Ejercicio	Importe (€)
2016	1.755.056,85
2017	650.000,00
Total	2.405.056,85

Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —pertsona eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak egokitu ahal izango dira.

2. artikulua

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

3. artikulua

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko maiatzaren 31n.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-668)

Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 100/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko kide anitzeko gobernu eta administrazio-organo gisa funtzionatzeko erregelamendua onesten duena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak hau ezartzen du bere 19.7 artikuluan: «Foru Aldundiak bere Erregelamendua eta Barne Erregimena hartu ahal izango ditu, berauetan haren funtzionamendurako eta proposaturiko atazen eta hartu behar ditzan ebazpenen prestaketa egokirako beharrezko izan daitezen arauak edukiko direkarik».

Arauz emandako ahalmen hori erabilita, Bizkaiko Foru Aldundiak otsailaren 24ko 29/1988 Foru Dekretua onartu zuen. Haren bidez, Gobernu eta Administrazioarako organo kolegiatu legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onetsi zen (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 53. zenbakia, martxoaren 4koa).

Onartu eta indarrean jarri zenetik 28 urte pasatu ondoren, orain eguneratu egin behar da, batetik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzeko, eta, bestetik, bitarteko elektronikoen erabilera bermatzeko Bizkaiko Foru Aldun-

Las cantidades asignadas a las diferentes partidas presupuestarias, tienen un carácter estimativo. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, dada la diferente naturaleza jurídica de las personas y entidades beneficiarias y los distintos conceptos de gastos subvencionados, los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas.

Artículo 2

Ordenar la publicación del presente Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 3

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 31 de mayo de 2016.

El diputado foral de Desarrollo Económico
y Territorial,
IMANOL PRADALES GIL

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-668)

Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 100/2016, de 31 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento de la Diputación Foral de Bizkaia, como órgano colegiado de gobierno y administración del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia prevé en su artículo 19.7 que «La Diputación Foral podrá adoptar su propio reglamento de Régimen Interior que contenga las normas necesarias para su funcionamiento y para la adecuada preparación de las tareas propuestas y las resoluciones que deba adoptar».

En ejercicio de esa habilitación legal, la Diputación Foral de Bizkaia aprobó el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 29/1988, de 24 de febrero, por el que aprobaba el Reglamento de Funcionamiento de la Diputación Foral de Bizkaia, como órgano colegiado de gobierno y administración («Boletín Oficial de Bizkaia» número 53, del 4 de marzo).

Transcurridos ya 28 años desde su aprobación y entrada en vigor, se plantea en este momento su actualización tanto para proceder a su adaptación a la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público como concretamente para asegurar

diaren bilerak eratu eta egiten direnean, jardun horren ondorioz xedapen orokorrak eta administrazio-ebazpenak ematen direnean eta aktak egiten direnean. Horrez gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legean ezarritako eskakizunak betetzeko eguneratu behar da.

Aurreko guztiak behar bezala justifikatzen du eta nahitaezkoa egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren kide anitzeko gobernu- eta zuzendaritza-organoaren barne-erregelamendua garai berrietara egokitzea, pixkanaka bitarteko elektronikokoak sartzeko, oraingoak eta etorkizunean ezartzen direnak; aurrez aurrekoak ez diren saioak (kideak bertaratu gabe) egin ahal izateko, etab. Azken finean, Bizkaiko Foru Aldundia eta haren kide anitzeko organoa malgutasun handiagoa izateko eta garai berrietara egokitze prestatu nahi da, segurtasuna eta legezotasuna bermatuta Bizkaia eta bizkaitarrei eragiten dizkieten erabakiak hartzen direnean.

Foru dekretu honen bidez onartutako erregelamenduak egitura hau du: titulu bakarra, «Bilkurak»; titulu horrek 21 artikulua ditu lau kapitulutan banatuta (I Deialdia eta gai-zerrenda; II Bilkuren araubidea; III Aktak, eta IV Erabakien betearazpena); xedapen gehigarri bat, bitarteko elektronikoen erabilerari buruzkoa; xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

Hori dela bide, Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2016ko maiatzaren 31 eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DA:

Artikulu bakarra

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko kide anitzeko gobernu- eta administrazio-organo gisa funtzionatzeko erregelamendua onestea. Hau da erregelamenduaren testua:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKO GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOAKO KIDE ANITZEKO ORGANO GISA

TITULU BAKARRA

BILKURAK

I. KAPITULUA

DEIALDIA ETA GAI-ZERRENDA

1. artikulua

1. Bizkaiko Foru Aldundiak astean behin egingo du ohiko bilkura.

2. Halaber, bilkura bereziak egin ahal izango ditu, eta presakoak izan daitezke.

3. Halaber, Ahaldun Nagusia eta foru diputatu guztiak bilduta daudela, aurretiaz ezein deialdirik egin gabe, Foru Aldundiaren bilkura une horretan egitea erabaki ahal izango dute. Aho batez hartuko da erabaki hori.

4. Ahaldun Nagusiak ezarriko du, hasieran eta aurrera begira, ohiko bilera zein egunetan egingo den. Foru dekretu bidez ezarriko du egun hori.

5. Foru Aldundiaren bilkuren deialdia Ahaldun Nagusiak egingo du, dekretu bidez, bilkura egiteko aurrez ikusitako data baino berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez. Dekretu horretan, bilkura egiteko ordua zehaztuko da, lehen deialdiarena zein bigarrenarena.

6. Ahaldun Nagusiak, bere ekimenez, bilkura bereziak deitu ahal izango ditu, bilkura egiteko aurrez ikusitako data baino berrogeita zortzi ordu lehenago, bere ustez deialdi hori justifikatzen duten gaiak daudenean. Dekretu horretan, bilkura egiteko ordua zehaztuko da, lehen deialdiarena zein bigarrenarena.

Salbuespen gisa, goian adierazitako berrogeita zortzi orduko epea laburtzeko aukera egongo da presako bilkura berezien kasuan.

la utilización de medios electrónicos en la constitución y celebración de reuniones de la Diputación Foral de Bizkaia y en la consecuente adopción de disposiciones de carácter general y resoluciones administrativas, así como en la elaboración de actas, así como finalmente para su adaptación a las exigencias de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Todo lo anterior, justifica suficientemente una adaptación necesaria y obligada a los nuevos tiempos del Reglamento interno del órgano colegiado de gobierno y dirección de la Diputación Foral de Bizkaia, permitiendo la incorporación paulatina de medios electrónicos, actuales y los que en el futuro se implementen, la celebración de sesiones no presenciales por todos sus miembros asistentes, etc. En definitiva, preparando a la Diputación Foral de Bizkaia y a su órgano colegiado para una mayor flexibilidad y adaptación a los nuevos tiempos, sin denostar la seguridad y legalidad jurídica, a la hora de la toma de decisiones que afecten a Bizkaia y a su ciudadanía.

El Reglamento aprobado por este Decreto Foral citado se estructura en un Título único, «De las sesiones», que consta de 21 artículos distribuidos en cuatro capítulos (I Convocatoria y Orden del Día; II Régimen de sesiones; III De las actas y IV De la ejecución de los acuerdos), una Disposición Adicional, de utilización de medios electrónicos, una Disposición derogatoria y una Disposición final.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y previa deliberación y aprobación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia en reunión de 31 de mayo de 2016,

SE DISPONE:

Artículo único

Aprobar el Reglamento de Funcionamiento de la Diputación Foral de Bizkaia, como órgano colegiado de gobierno y administración del Territorio Histórico de Bizkaia, cuyo texto es el siguiente:

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, COMO ÓRGANO COLEGIADO DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

TÍTULO ÚNICO

DE LAS SESIONES

CAPÍTULO I

CONVOCATORIA Y ORDEN DEL DÍA

Artículo 1

1. La Diputación Foral de Bizkaia celebrará sesión ordinaria con carácter semanal.

2. Igualmente podrá celebrar sesiones extraordinarias, que pueden tener el carácter de urgentes.

3. Asimismo, hallándose reunidos el Diputado o la Diputada General y todas las diputadas y los diputados forales, sin ninguna clase de convocatoria previa, podrán acordar, por unanimidad, la celebración en ese momento de sesión de la Diputación Foral de Bizkaia.

4. El Diputado o la Diputada General fijará, inicialmente y para lo sucesivo, mediante decreto, el día en que deba celebrarse sesión ordinaria.

5. Las sesiones de la Diputación Foral de Bizkaia serán convocadas, mediante decreto por el Diputado o la Diputada General, al menos con cuarenta y ocho horas de antelación al momento previsto para su celebración. En el citado Decreto se establecerá la hora en que deba celebrarse la sesión tanto en primera como en segunda convocatoria.

6. El Diputado o la Diputada General podrá convocar, a iniciativa propia, con cuarenta y ocho horas de antelación al momento previsto para su celebración, sesiones extraordinarias, cuando existan asuntos a tratar que, a su consideración, así lo motiven. En el Decreto se fijará la hora de la sesión en primera y en segunda convocatoria.

Excepcionalmente, el plazo de cuarenta y ocho horas de antelación anteriormente determinado, podrá reducirse en el caso de sesiones extraordinarias de carácter urgente.

7. Bilkurak Foru Jauregian (Bilbo) edo Foru Aldundiak bulegoak dituen beste edozein eraikinetan egitea lehenetsiko da. Hala ere, salbuespen gisa, beste edozein lekutan egin ahal izango dira, horretarako baimena badu. Edonola ere, datu hori deialdian eta bilkurako aktan jaso beharko da.

8. Bilkurek gai-zerrendan sartutako gai guztiak aztertu arte iraungo dute, eta Ahaldu Nagusiak egokitzat jotzen dituen etenaldiak edo atsedenaldiak ezar ditzake.

2. artikulua

Deialdian, Ahaldu Nagusiak bilkura egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko ditu, baita gai-zerrenda ere.

3. artikulua

1. Gai-zerrendako lehenengo puntua aurreko bilkurako akta irakurtzea eta, hala erabakitzen bada, onartzea izango da. Gainerako gaiak bidali dituzten foru sailen arabera sailkatuko dira, eta hurrenkera honetan aztertuko dira:

- Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.
- Ogasuna eta Finantzak.
- Euskara eta Kultura.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna.
- Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa.
- Gizarte Ekintza.
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala.
- Ekonomi eta Lurralde Garapena.
- Ahaldu Nagusiaren Kabinetea.

Hurrenkera hori automatikoki eguneratuko da foru sailen ize-netan eta eginkizunetan egindako aldaketak kontuan hartuta.

2. Bilkuren deialdiak eta gai-zerrendak Euskal Autonomia Erki-degoko hizkuntza ofizial bietan idatziko dira.

4. artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiko kideek Ahaldu Nagusiari bidaltzen dizkioten gai-zerrendan sartzeko gaiei dagozkien espedienteak Idazkaritza atxikita dagoen foru saileko titularrari bidali beharko zaizkio aurretiaz.

5. artikulua

1. Deialdiarekin batera, bilkuran aztertu beharreko proposamenak bidali beharko zaizkie Ahaldu Nagusiari eta foru diputatuei, ahal dela bitarteko elektronikoen bidez.

2. Gai-zerrendan sartutako agiri guztiak banatuko dira eta gaia eztabaidatzeko, aztertzeko eta, onartzeko botaziorik egiten bada, botazioa egiteko erabiliko dira.

3. Foru sailek proposatutako xedapen orokorren proiektuen kasuan, hauek erantsi beharko dira: zioen azalpena, beharrezkoak diren aurrekariak eta proiektuei buruzko iritzia eman ahal izateko aginduzkoak diren txostenak.

6 artikulua

Behar bezala justifikatutako presako arrazoiak direla eta, gai-zerrendatik kanpoko gaiak aztertu ahal izango dira bilkuran. Aurrekoa egin ahal izateko, aurretiaz gehiengo soilez erabaki beharko da gaiak sartzea. Edonola ere, erregelamendu honen 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da eta erregelamendu honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera beharrezkoak diren agiriak eduki beharko dira.

7. Las sesiones se celebrarán preferentemente en el Palacio Foral sito en Bilbao o en cualquier otro edificio en el que la Diputación Foral tenga dependencia, si bien excepcionalmente podrán celebrarse en cualquier otro lugar donde se le permita su celebración. En todo caso, este extremo deberá hacerse constar en la convocatoria y en el acta de la respectiva sesión.

8. Las sesiones continuarán hasta la terminación de los asuntos puestos a su consideración, pudiendo en todo caso, el Diputado o la Diputada General determinar cuántas interrupciones o descansos considere oportunos.

Artículo 2

El Diputado o la Diputada General hará constar en la convocatoria la fecha, hora y lugar de celebración de la respectiva sesión, así como el Orden del Día de la misma.

Artículo 3

1. El Orden del Día se iniciará con el punto relativo a la lectura y aprobación, si así procediere, del acta de la sesión anterior y el resto de los asuntos irán clasificados conforme al departamento foral de procedencia, a tenor del siguiente orden:

- Administración Pública y Relaciones Institucionales.
- Hacienda y Finanzas.
- Euskera y Cultura.
- Empleo, Inclusión Social e Igualdad.
- Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio.
- Acción Social.
- Sostenibilidad y Medio Natural.
- Desarrollo Económico y Territorial.
- Gabinete del Diputado o Diputada General.

Este orden será automáticamente actualizado de conformidad con las modificaciones habidas en las denominaciones y funciones de los departamentos forales.

2. Las convocatorias de las sesiones y los Órdenes del día se redactarán en las dos Lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

Artículo 4

Los expedientes relativos a los asuntos que las y los miembros de la Diputación Foral de Bizkaia eleven al Diputado o a la Diputada General para su inclusión en el Orden del Día, deberán remitirse previamente al titular del departamento foral al que esté adscrita la Secretaría.

Artículo 5

1. Juntamente con la convocatoria habrán de remitirse tanto al Diputado ó a la Diputada General como a las diputadas y a los diputados forales las propuestas que hayan de tratarse en la respectiva sesión, preferentemente por medios electrónicos.

2. Se dispondrá de toda la documentación relativa a los asuntos incluidos en el Orden del Día, que deberá servir de base al debate, consideración y, en su caso, votación correspondiente en aras a su aprobación.

3. Cuando se trate de proyectos de Disposiciones de carácter general propuestas por los respectivos departamentos forales irán acompañados de una exposición de motivos, de los antecedentes necesarios y de los informes preceptivos para poder pronunciarse sobre los mismos.

Artículo 6

Por razones de urgencia debidamente motivada, podrán incluirse en la sesión asuntos fuera del Orden del Día respectivo. Para que esto sea posible, previamente deberá acordarse por mayoría simple, aplicándose en todo caso lo dispuesto en el artículo 12 de este Reglamento y disponiéndose de la documentación necesaria conforme al artículo 5 de este Reglamento.

II. KAPITULUA

BILKUREN ARAUBIDEA

7. artikulua

1. Bilkurak hasteko eta balio osoz egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da Ahalduen Nagusia edo legez ordezten duena eta, gutxienez, foru diputatuen erdia egotea, zuzenean edo urrutitik parte hartzeko sistema baten bidez.

2. Ahalduen Nagusia ordezten denean, ordezten duen pertsona ordezeko den heinean parte hartuko du bileran, eta, beraz, gainerako foru diputatuek osatu beharko dute bilkura egiteko behar den kideen erdia.

3. Ahalduen Nagusiak urrutitik parte hartzen duenean bilkuran, bere izaerari eta eginkizunei utsiko die bilkuraren garapenari dagokionez, dekretu bidez ezarritako ordezkapenak gorabehera.

8. artikulua

Ahalduen Nagusia lehen Ahalduen Nagusiordeak ordeztuko du, eta hura ez dagoenean, bigarren Ahalduen Nagusiordeak; hura ez balego, foru diputatu karguan etenik gabe denbora gehien eman duen foru diputatua izango da ordezkoa, eta, azkenik, adinez nagusia den foru diputatua.

9. artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiaren bilkuretara hauek joango dira: Ahalduen Nagusia, foru diputatuak eta, Ahalduen Nagusiaren Kabinetetik badago, Kabineteko arduraduna.

10. artikulua

1. Gai-zerrendan sartutako gaiak eta, hala dagokionean, gai-zerrendatik kanpoko gaiak bideratzeko, Ahalduen Nagusiak adituek parte hartzeko baimena eman dezake, edozein diputatuk eskatuta edo bere ekimenez.

2. Aditu horiek kontsultatzen zaizkien alderdiei buruzko informazioa emateko behar den denboran baino ez dira egongo dira bilkuran.

11. artikulua

1. Ahalduen Nagusiari dagokio eztabaidak zuzendu eta antolatzea eta gaiak bideratzea. Halaber, bere ardura da bilkurak eten, itxi edo amaitutzat jotzea, egoki deritzenean.

2. Eztabaidetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietatik edozein erabili ahal izango da.

3. Ahalduen Nagusiak bilkura eteten badu, berriro hasteko ordua zehaztuko du, eta bilkura bera eta bakarra dela ulertuko da, ondorio guztietarako.

12. artikulua

1. Erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira.

2. Proposamenaren aldeko botoen kopurua aurkakoen botoena baino handiagoa denean esango da gehiengo soila lortu dela. Horretarako, ez dira zenbatuko abstentzioak, ezta boto zuriak eta baliogabeak ere.

3. Hainbanaketak Ahalduen Nagusiak edo legez ordezten duenak ebatziko ditu, kalitateko botoaren bidez.

4. Bozketak izendunak izango dira. Botazioak sekretuak izango dira bertaratutako foru diputatuen erdiak gehi batek hala eskatzen dutenean.

CAPÍTULO II

RÉGIMEN DE SESIONES

Artículo 7

1. Las sesiones no podrán iniciarse ni celebrarse válidamente sin la asistencia, presencial o a distancia del Diputado o la Diputada General o de la persona que legalmente le sustituya y de la mitad, al menos, de las diputadas y los diputados forales.

2. En los supuestos de sustitución del Diputado o la Diputada General, la persona que le sustituya lo hará exclusivamente en tal condición de sustituta o sustituto, debiendo por lo tanto el resto de las diputadas y los diputados forales constituir la mitad, al menos, de las personas con tal consideración.

3. Cuando el Diputado o la Diputada General asistan a distancia a una sesión, conservará su carácter y funciones en lo relativo al desarrollo de esa sesión, independientemente de los supuestos de sustitución decretados.

Artículo 8

El Diputado o la Diputada General será sustituido o sustituida por la o el primer Teniente de Diputado o de Diputada General; en defecto de éste o ésta, por la o el segundo Teniente de Diputado ó de Diputada General y, en ausencia de éste o de ésta, por la diputada o diputado foral que más tiempo haya permanecido ininterrumpidamente en el ejercicio la condición de diputada o diputado foral, y finalmente por la diputada o el diputado foral de mayor edad.

Artículo 9

Asistirán a las sesiones de la Diputación Foral de Bizkaia, además del Diputado o la Diputada General, las diputadas y diputados forales, así como la persona responsable del Gabinete del Diputado o Diputada General, si lo hubiere.

Artículo 10

1. Para el despacho de los asuntos incluidos en el Orden del Día, y de los asuntos de fuera del orden del día, en su caso existentes, el Diputado o a la Diputada General, a petición del cualquiera de las diputadas y de los diputados forales, o por propia iniciativa, podrá autorizar la presencia de personas expertas.

2. La presencia de dichas personas expertas se limitará al tiempo que hayan de informar sobre los extremos que les fueran consultadas.

Artículo 11

1. El Diputado o la Diputada General dirige y organiza los debates y el despacho de los asuntos. Igualmente suspende, cierra y levanta las sesiones, cuando así lo considere oportuno.

2. En los debates podrá utilizarse indistintamente cualquiera de las dos Lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

3. En caso de que el Diputado o la Diputada General suspenda la sesión, determinará la hora de reanudación de la misma, considerándose a todos los efectos que se trata de la misma y única sesión.

Artículo 12

1. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de las personas asistentes.

2. Se entenderá alcanzada la mayoría simple cuando el número de votos a favor de la propuesta sea superior al de votos en contra. A estos efectos, las abstenciones, así como los votos en blanco y/o nulos, no serán computados.

3. Los empates en estos cómputos serán dirimidos por el voto de calidad del Diputado ó de la Diputada General, o de la persona que legalmente le sustituya.

4. Las votaciones serán nominales. Serán secretas cuando así lo soliciten la mitad más uno de los diputados y diputados forales asistentes.

13. artikulua

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren kide anitzeko gobernu- eta administrazio-organoko kideek isilpean gorde beharko dituzte bilkuretan izandako eztabaidak, kargua utzi ondoren ere.

2. Betebehar bera izango dute bilkuraren batean parte hartzen duten adituek, eskatu zaien aholkularitzaren edukiari dagokionez, baita Idazkaritza Orokorreko arduradunak eta/edo Ahaldun Nagusiaren Kabineteko arduradunak ere, halakorik badago.

14. artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu behar dituen agiriak eta espedienteak isilpekoak izango dira, Aldundiak argitaratu arte.

III. KAPITULUA

AKTAK

15. artikulua

1. Foru Aldundiak egiten duen bilkura bakoitzeko akta egingo da. Datu hauek jasoko dira akta horretan:

- a) Bilkura egin den lekua, udalerrria eta lokala adierazita.
 - b) Urtea, hilabetea eta eguna.
 - c) Bilkuraren hasiera-ordua.
 - d) Ahaldun Nagusiaren edo legez ordezten duenaren, bertan dauden foru diputatuen eta Ahaldun Nagusiaren Kabineteko —halakorik badago— arduradunaren izen-abizenak, bai eta bertaratu ez diren foru diputatuenak ere.
 - e) Bilkura ohikoa edo berezia den; eta berezia bada, presakoa den ala ez. Halaber, lehen deialdian edo bigarrenean egin den adieraziko da.
 - f) Idazkari-lanak egiten dituenaren edo legez ordezten duenaren izen-abizenak.
 - g) Aztertutako gaiak eta bakoitzean hartutako erabakiak.
 - h) Egindako botazioak, bertaratutako bakoitzaren botoa zehaztuta, izenezko botazioa izan bada. Izenezkoak ez diren botazioetan, baiezko botoak, ezezkoak eta abstentzioak adieraziko dira. Izenezko botazioak egingo dira botoa emateko eskubidea duen edozein pertsonak eskatzen duenean eta botazioan hala onartzen bada.
 - i) Hartutako erabakien xedapen-zatia.
 - j) Bilkura amaitu den ordua.
2. Akta idazkari den foru diputatuak egingo du.

3. Pertsona nahiko agertu ez direlako (quorum falta) edo beste arrazoiren bat dela medio, bilkurarik egiten ez bada, idazkari den foru diputatuak bere sinaduraz baimendutako eginbide bat egingo du aktaren ordeze, eta agiri horretan jasoko du bilkura ez dela egin.

4. Aktak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan idatziko dira.

16. artikulua

Idazkari den foru diputatuak erabakien fede emango du eta, bidezko denean, erabakien ziurtagiria egingo du.

17. artikulua

Bilkurako behin-behineko akta hurrengo bilkuran aurkeztuko zaio Foru Aldundiari, onar dezan.

Bizkaiko Batzar Nagusiei al bait arinen izan daitezten jakitun, behin-behineko akta Batzar Nagusiei bidali ahal izango zaie, ahalik eta azkarren, idazkari-lanak betetzen dituen foru diputatuaren edo ordezten duen pertsonaren sinadurarekin.

Artículo 13

1. Las personas miembros del órgano de gobierno y administración de la Diputación Foral de Bizkaia, aún después de haber cesado en su respectivo cargo, estarán obligadas a guardar secreto de las deliberaciones habidas en las respectivas sesiones.

2. Igual obligación alcanzará a las personas expertas cuya participación haya sido requerida en alguna sesión respecto al contenido de su asesoramiento, así como a la persona responsable de la Secretaría General y/o del Gabinete del Diputado o Diputada General, si la hubiere.

Artículo 14

Los documentos y expedientes que se sometan a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia tendrán carácter reservado hasta que ésta los haga públicos.

CAPÍTULO III

ACTAS

Artículo 15

1. De cada una de las sesiones de la Diputación Foral se extenderá un acta. En ellas se hará constar:

- a) Lugar de la reunión, con expresión del municipio y local donde se celebra.
 - b) Día, mes y año de la sesión.
 - c) Hora en que comienza la sesión.
 - d) Identificación del Diputado ó de la Diputada General o persona que legalmente le sustituya, Diputadas y Diputados forales asistentes, y/o persona responsable del Gabinete del Diputado o Diputada General, si la hubiere, así como diputadas y diputados forales no asistentes.
 - e) Carácter ordinario o extraordinario de la reunión, incluso carácter urgente de esta última, en su caso. Además, también se hará mención a si se celebra en primera o segunda convocatoria.
 - f) Identificación de la persona responsable de las labores de Secretaría o de quien legalmente le sustituya.
 - g) Asuntos que se examinan y decisión que se adopta sobre cada uno de ellos.
 - h) Votaciones que se verifiquen, con sentido del voto de cada una de las personas asistentes en el supuesto de votación nominal. En las votaciones no nominales se hará constar el número de votos afirmativos, de los negativos y de las abstenciones. Serán votaciones nominales cuando así resulte de la votación a tal efecto se solicite por cualquier persona con derecho a voto.
 - i) Parte dispositiva de los acuerdos que se adopten.
 - j) Hora de la finalización de la respectiva sesión.
2. El acta será extendida por el diputado o la diputada foral encargada de la Secretaría.

3. De no celebrarse sesión por falta de personas asistentes (quórum) u otro motivo, la diputada o diputado foral encargada de la Secretaría suplirá el acta por una diligencia autorizada con su firma en la que se consigne la no celebración de la misma.

4. Las actas serán redactadas en las dos Lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

Artículo 16

La diputada o diputado foral encargada de la Secretaría dará fé de los acuerdos y librára, cuando así proceda, certificación de los mismos.

Artículo 17

Las actas provisionales de las sesiones serán puestas a la consideración de la Diputación Foral para su aprobación, en la siguiente sesión.

En aras a propiciar su más pronto conocimiento por parte de Juntas Generales de Bizkaia, las actas provisionales podrán ser remitidas a las propias Juntas Generales a la mayor celeridad posible y con la sólo firma del diputado o diputada foral que tenga adscrita la función de Secretaría o de quien legalmente le sustituya.

Aktak onartu eta gero, idazkari den foru diputatuak edo ordezten duen pertsonak sinatuko ditu, Ahaldu Nagusiaren edo ordezten duen pertsonaren oniritziarekin. Bertaratutako (zuzenean edo urrutitik parte hartzeko sistema baten bidez) foru diputatu guztiek izenpetuko dituzte.

Akta behin betikoa denean, Bizkaiko Batzar Nagusietara bidaliko da.

18. artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiaren bilkuretako aktak «Bizkaiko Foru Aldundiaren Akten Liburua» izeneko liburuan gordeko dira, eta haien egiazkotasuna eta kontserbazioa bermatzen duten baldintzak beteta artxibatu ahal izango dira.

Halaber, Foru Erakundearen foru dekretu bidez ematen diren ebazpenak «Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuen Liburua» izeneko liburuan gordeko dira, eta aurreko leerroaldean ezarritako baldintza berberak beteta artxibatu ahal izango dira.

19. artikulua

Bere eginkizunak betetzeari utzi baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiak bilkura berezi bat egingo du, horren aurretik egindako azken bilkurako aktari buruzko erabakia hartzeko, eta horretarako baino ez.

IV. KAPITULUA

ERABAKIEN BETEARAZPENA

20. artikulua

1. Foru Aldundiaren erabakiak berehala betearaztekoak izango dira, legezko xedapenen arabera etetea edo geroratzea erabakitzen ez bada.

2. Erabakiak sailek betearazi beharko dituzte, bakoitzaren eskumen funtzionalen arabera.

21. artikulua

Foru arauen proiektuei edo foru dekretu arauemaileei buruzko erabakien kasuan, eskumena duenak bidali beharko ditu Bizkaiko Batzar Nagusietara.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.— *Bitarteko elektronikoen erabilera eta urrutiko bilkurak*

1. Bizkaiko Foru Aldundia, kide anitzeko gobernu eta administrazio-organo gisa, bilkura-lekuan egonda zein urrutitik parte hartuta eratu ahal izango da, eta hala deitu eta egin ahal izango ditu bilkurak, baita erabakiak hartu eta aktak bidali ere.

2. Urrutitik egiten diren bilkuretan, partaideak leku ezberdinetan egon ahal izango dira, betiere hauek bermatzen badira: kideen identitatea, adierazpenen edukia, adierazpenak egiten diren unea, kideen arteko elkarrekintza eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkuran zehar behar diren bitartekoak. Aurreko guztia bitarteko elektronikoen bidez bermatuko da.

3. Bitarteko elektronikoei dagokienez, baliozkoak izango dira, besteak beste, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideo-konferentziak.

4. Ahaldu Nagusia eta/edo idazkari den foru diputatua ordeztzen badira, bietako bat edo biak urrutitik ari badira, ordezkoez ez dute izaera hori izango erregelamendu honen II. kapituluan kargudun horientzat ezarritako ahalmenei dagokienez. Izan ere, eginkizun horiek gordeko dituzte, hurrenez hurren, ordeztuak izan diren eta urrutitik parte hartzen ari diren Ahaldu Nagusiak eta idazkari den foru diputatuak.

Una vez aprobadas, las actas serán firmadas por la diputada o diputado foral encargada de la Secretaría, o de quien legalmente le sustituya, con el visto bueno del Diputada o de la Diputada General o de quien legalmente le sustituya. Constará la firma de todas las diputadas y diputados forales asistentes, de forma presencial o a distancia, a la respectiva sesión.

Una vez sea definitiva el acta será remitida a Juntas Generales de Bizkaia.

Artículo 18

Las actas de las sesiones de la Diputación Foral serán conservadas en un libro que se denominará «Libro de Actas de la Diputación Foral de Bizkaia», pudiendo estar archivadas con todas las garantías adecuadas para su autenticidad y conservación.

Igualmente, las resoluciones que adopten la forma de Decretos Forales de la Institución Foral serán conservadas en un libro que se denominará «Libro de Decretos forales de la Diputación Foral de Bizkaia», pudiendo estar archivados con las mismas garantías que en el supuesto anterior.

Artículo 19

Antes de cesar en sus funciones, la Diputación Foral de Bizkaia celebrará sesión extraordinaria al sólo efecto de adoptar el acuerdo que proceda respecto de la toma en consideración del acta de la última sesión celebrada.

CAPÍTULO IV

EJECUCIÓN DE ACUERDOS

Artículo 20

1. Los acuerdos de la Diputación Foral serán inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio de su suspensión o aplazamiento conforme a las disposiciones legales.

2. La ejecución de los acuerdos corresponderá a los respectivos Departamentos forales, según sus competencias funcionales.

Artículo 21

Quando se trate de acuerdos relativos a proyectos de Normas Forales o a Decretos Forales Normativos, la remisión de los mismos a las Juntas Generales de Bizkaia corresponderá a a quien en cada caso tenga atribuida tal competencia.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Única.— *Utilización de medios electrónicos y sesiones a distancia*

1. La Diputación Foral de Bizkaia, como órgano colegiado de gobierno y administración, se podrá constituir, convocar, celebrar sus sesiones, adoptar acuerdos y remitir actas, tanto de forma presencial como a distancia.

2. En la sesiones que se celebren a distancia, las personas asistentes podrán encontrarse en distintos lugares, siempre y cuando se asegure por medios electrónicos, la identidad de tales miembros, el contenido de las manifestaciones, el momento en que éstas se producen, así como la interactividad e intercomunicación entre ellos en tiempo real y la disponibilidad de los medios durante la sesión.

3. Entre otros, se considerarán incluidos entre los medios electrónicos válidos, el correo electrónico, las audioconferencias, y las videoconferencias.

4. En el supuesto de sustitución del Diputado o de la Diputada General y/o de la diputada o diputado foral titular de la Secretaría, cuando alguno de ellos o ambos asistan a la sesión a distancia, las respectivas personas sustitutas no adquirirán tal condición respecto de las facultades de esos cargos reservadas en el capítulo II de este Reglamento en relación a tal sesión, funciones que conservarán, respectivamente, el Diputado o la Diputada General y/o de la diputada o diputado foral titular de la Secretaría, personas sustituidas y asistentes a distancia a tal sesión.

5. Deialdiak eta gai-zerrendak bitarteko elektronikoen bidez bidaliko zaizkie Foru Aldundiaren kide anitzeko gobernu- eta administrazio-organoko kideei, eta, ahal denean, hauek zehaztuko dira: zer baldintzatan egingo den bilkura, konexio-sistema eta, hala badagokio, bilkuran izateko eta parte hartzeko baliabide teknikoak non dauden.

6. Oro har, eta besterik esaten ez bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan, hau da, Bilboko Foru Jauregian gela bat prestatuko da baliabide tekniko horiekin, eta aktan gela hori agertuko da bilkuraren leku gisa, eta, beraz, erabakiak leku horretan hartu direla ulertuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Beren beregi indargabetzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 24ko 29/1988 Foru Dekretua eta erregelamendu honetan jasotakoarekin bat ez datozen lerrun bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko maiatzaren 31n.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-673)

**Administrazio-kontratu berezi baten formalizazio-iragar-
kia: Bizkaiko Foru Aldundiak Muskiz eta Güeñes udale-
rrietan dituen ondare mendietako 3 loteren baso apro-
betxamendua.**

1. Erakunde adjudikatzailea:
 - a) Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kontratazio Zerbitzua.
 - c) Espediente zenbakia: 2016/008/071/02.
 - d) Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.bizkaia.eus/kontratupublikoak.
2. Kontratuaren xedea:
 - a) Mota: Administrazio-kontratu berezia.
 - b) Deskripzioa: Bizkaiko Foru Aldundiak Muskiz eta Güeñes udalerrietan dituen ondare mendietako 3 loteren baso aprobetxamendua.
 - c) Loteak (halakorik badago): Bai, 3.
 - d) CPV (nomenklatura erreferentzia): —
 - e) Esparru akordioa (hala badagokio): Ez.
 - f) Erosteko sistema dinamikoa (hala badagokio): Ez.
 - g) Licitazio iragarkia argitaratu den aldizkaria: «Bizkaiko Aldizkari Ofiziala».
 - h) Licitazio-iragarkia argitaratu den data: 2016/03/09.
3. Izapidetzea eta prozedura:
 - a) Izapidetzea: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
4. Kontratuaren balio zenbatetsia:

Zenbateko garbia: 130.889,50 euro.

Zenbateko osoa: 146.596,24 euro.

5. Las convocatorias del Orden del Día serán remitidas a las personas miembros del órgano colegiado de gobierno y administración de la Diputación Foral a través de medios electrónicos, haciendo constar, cuando sea posible, las condiciones en las que se va a celebrar la sesión, el sistema de conexión y, en su caso, los lugares en que estén disponibles los medios técnicos necesarios para asistir y participar en la reunión.

6. Con carácter general, y salvo indicación contraria, se dispondrá en la sede de la Diputación Foral de Bizkaia, Palacio Foral de Bilbao, de una sala donde se encuentre disponible dichos medios técnicos, figurando en acta como lugar de celebración de la reunión y, por tanto, entendiéndose los acuerdos adoptados en dicho lugar.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga expresamente el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 29/1988, de 24 de febrero, y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a las contenidas en el presente Reglamento.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

